

OCW

IKASTEKO MATERIALAK

**ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA
HEZKUNTZAN**

4. GAIA. DIAGNOSIA HEZKUNTZAN: EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA EUSKADIN

- 4.1. Ebaluazio psikopedagogikoa eta txosten psikopedagogikoa: hainbat alderdi
- 4.2. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak
- 4.3. Gaitasun intelektual handia duten ikasleak
- 4.4. Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak
- 4.5. Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak
- 4.6. Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoa
- 4.7. Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak
- 4.8. Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak
- 4.9. Desberdintasun sozialeko egoerak
- 4.10. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZAK HAUEK IZANGO DIRA:

Irakasgai honen amaieran, ikasleak:

- 1. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleen diagnosiarekin zerikusia duten baliabideak ezagutuko ditu**
- 2. Gaitasun intelektual handia duten ikasleen diagnosiarekin zerikusia duten baliabideak arakatuko ditu**
- 3. Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleen diagnosiarekin zerikusia duten baliabideak ezagutuko ditu**
- 4. Berriazko ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen diagnosiarekin zerikusia duten baliabideak aztertuko ditu**

4.1. Ebaluazio psikopedagogikoa eta txosten psikopedagogikoa: hainbat alderdi

Puntu honetan, lehenik ebaluazioaz hitz egingo da, gero ebaluazio psikopedagogikoa Euskadin nola ulertzen den azalduko da; ondoren, txosten psikopedagogikoaren atalei buruz hitz egingo da; jarraian, berariazko hezkuntza-laguntza premia duten ikasleen tipologia eta W67 aplikazioan erabiltzen diren taldeak azalduko dira eta azkenik, familiak aintzat hartzearen garrantzia azpimarratuko da.

Euskal hezkuntza sisteman, 'ebaluazioaren helburu nagusia ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuko lorpen eta zailtasunei buruzko informazioa biltzea da, hezkuntza-helburuen betetze maila balioztatu ahal izateko eta bere hezkuntza-garapenean laguntzeko; bide batez, beharrezkoa balitz, irakatsi eta ikasteko prozesua bideratzeko' (30 orr.) [1]. Gidan aipatzen da baita, ebaluazioak, alde batetik, prestakuntza helburua izan behar duela, eta bestetik, batutzailea izango dela, hau da, eskuratutako lorpenak ebaluatzen zuzendua izango dela.

Ebaluazio psikopedagogikoa, Orientasaren aipatzen denez, [2] hau da, hitzez hitz (belztutako hitzak jatorrizkoak dira): 'Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten elementuei buruzko informazioa **jasotzea, aztertzea** eta **baloratzea**, ikasleari **hezkuntza-erantzun egokia adosteko**. Prozesu horretan inplikaturako **eragile guztiak** hartzen dute parte, baina **orientatzailea** da arduradun nagusia'. Izan ere, **orientatzailearen funtzioetako** bat da, ikasleek dituzten ikasteko zailtasunak hautematea eta aztertzea da, tutorearekin eta taldeko irakasleekin lankidetzan, eta behar den kasuetan ebaluazio psikopedagogikoa egitea. Ebaluazioa egitearen arrazoiak izan daitezke, ikasteko zailtasunak, gaitasun handiak, portaera arazoak, berariazko baldintza pertsonalak, berandu sartu diren ikasleak, ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa (DC programak) batetan parte hartzea, eta beste batzuk [3].

Garrantzitsua da azpimarratzea, **ebaluazio psikopedagogikoaren prozedura** 118/1998 Dekretuak arautzen duela eta 3. diapositiban esaten denez [4], balorazio psikopedagogikoaren eskaera, hezkuntza esku hartzearen ezohiko prozedura bat da. Ezohikoa den heinean, aniztasunari behar adinako erantzuna emateko, balorazioaren eskaera tutoreak aholkulari edota orientatzailearekin batera proposatu eta burutu dituzten ohizko ekimen guztiak nahikoak izan ez direnean soilik egingo da.

Laburki esanda, [3,4] **bidea** ondokoa izaten da: tutoreak kontsultoreari/orientatzaileari gelan ikasleari antzemandako zailtasunaren berri ematen dio. Kontsultoreak/orientatzaileak behaketa bat egiten du. Bien artean ikaslearen premiak aztertuko dituzte. Beharrak ondo identifikatu direnean (adb. gurasoekin aztertu egoera), hezkuntza-erantzuna emateko neurriak hartu direnean (adb. metodologia desberdinak eskaini), ikaslearen aurreko ikasturteko notak begiratu direnean eta erantzunak nahikoak ez direnean, Berritzeguneko aholkulariarekin partekatzen da. [5] Aholkularitza psikopedagogikoaren eskaera, 5. dokumentuko estekaren bidez egiten dute gurasoek. Halaber, bertan dago isilpekotasunerako baimena.

Ikasleari buruzko informazioa jasotzea askotariko tresnekin egiten da. Tresna arruntak dira elkarrizketak, behaketak, galdeketak, eskolako lanen azterketa e.a. eta espezifikoak dira testak. Erabiltzen ari diren tresna espezifiko batzuk eskaintzen dizkigu Lasarteko Berritzeguneak 23. diapositibatik aurrera. [3] Gainera, oso kontuan hartzekoak dira NHBBZ/CREENAK bere ebaluazio psikopedagogikoaren atalean erakusten dituen testak; azken hauek, tipologia bakoitzean gehituko dira aurrerago.

Ebaluazio psikopedagogikoaren **txosten ereduak** Euskadiko ikastetxeetan atal hauek ditu (ikus 1. taula) [3] dokumentuko 15. diapositiban aurkitu daiteke erabiltzen dena.

1. taula. Ebaluazio psikopedagogikoaren atalak

EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOAREN ATALAK
-Ikaslearen datuak
-Ebaluazioa egitearen arrazoiak
-Nork eskatuta
-Erabilitako tresnak
1. Ikasketen historiaren laburpena
2. Ikaslearen garapen orokorra
3. Hezkuntza testuinguruaren azterketa
4. Familia eta gizarte testuinguruaren azterketa
5. Hezkuntza beharren identifikazioa
6. Hezkuntza erantzuna emateko orientabideak
7. Familiari zuzendutako orientabideak
8. Jarraitzea eta berrikustea

Berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak (BHLP) edo ikasleen tipologia 2. taulan ikusi daiteke [3, 5] (zehazki 3. aurkezpeneko 5. diapositiban eta 5. dokumentuko 10. orriko **'tipologian'** (ikus 2. taula).

2.taula. Berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen (BHL) tipologia

TIPOLOGIA	TIPOLOGIA ZEHATZAGOA
Hezkuntza-beharrizan bereziak, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahaste larrietatik eratorrita	<ul style="list-style-type: none"> -Adimen-, entzumen- edo ikusmen-degaitasunak -Desgaitasun fisikoak eta espekto autistaren nahasmenduak -Desgaitasun anitzak -Gortasun-itsutasuna -Jokabide-arazo larriak
Ikasteko zailtasun espezifikoak (edo dokumentuan ageri den bezala, Berriazko ikasteko zailtasunak)	<ul style="list-style-type: none"> Zailtasunak dituzte, -Mezuak ulertu eta ekoizteko -Irakurri eta idazteko -Kalkulu aritmetikoak egiteko -Arreta jartzeko eta/edo mantentzeko -Oldarkortasuna kontrolatzeko Ikasteko erritmo mantsoagoa dute Hizkuntzako berriazko arazoak dituzte
Gaitasun intelektual handia	<ul style="list-style-type: none"> -Aparteko adimen-trebetasunak eta goi-mailako memoria-funtzioak -Erraztasun eta bizkortasun handia informazio berria eskuratzekoan; informazioa konplexuagoa denean baita
Hezkuntza-sisteman berandu sartzea	<ul style="list-style-type: none"> -Hizkuntzen kompetentzia -Desfase curricularra
Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak (gaixotasuna...)	<ul style="list-style-type: none"> -Osasun-arazoak -Etxeko arreta -Arreta terapeutiko osagarria -Gaixotasun minoritarioak
Desberdintasun sozialeko egoerak	<ul style="list-style-type: none"> -Espektatiba baxuak -Motibazio falta
Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak	<ul style="list-style-type: none"> -Borondatezko arreta mantentzeko zailtasuna -Inpultsoen kontrol eza

Aipaturiko tipologiak hiru ardatz edo taldetan zehar erregistratzen dira, ikastetxeek betetzen duten W67 aplikazioan: A, B eta C taldeetan [6]. (Ikus 3. taula)

3.taula. W67 aplikazioko 3 taldeak

3 TALDEAK	TIPOLOGIAK ETA NEURRIAK
A taldea: kategoria diagnostikoa (etiologia)	-Gaitasun handiak -Hizkuntza nahasmendua -Arretaren/hiperaktibitatearen defizitagaritako nahasmendua -Ikasteko zailtasun espezifikoak
B taldea: hezkuntza premiak	-Berariazko ikaskuntza arloak (HH, LH edo DBHko arloak, jakintzagaiak eta moduluak) - Eremu afektiboan adierazitako beharrak - Komunikazioaren arloan adierazitako beharrak -Autorregulazioa eta jarduketaren eta gizarteratzearen arloan adierazitako premiak
C taldea: curriculum neurri arruntak	-Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP) -Curriculuma aberastea -Ohiko curriculum- eta metodologia-doikuntzak

3 taulan ikusten denez, A taldean daude etiologiari edo kategoria diagnostikoari lotutakoak: gaitasun handiak, hizkuntza nahasmendua, arretaren/hiperaktibitatearen defizitagaritako nahasmendua, ikasteko zailtasun espezifikoak. B taldean daude hezkuntza premiak dituzten eremuak: berariazko ikaskuntza arloak (HH, LH edo DBHko arloak, jakintzagaiak eta moduluak), eremu afektiboan adierazitako beharrak, komunikazioaren arloan adierazitako beharrak, autorregulazioa eta jarduketaren eta gizarteratzearen arloan adierazitako premiei buruzkoa. C taldean daude curriculum neurri arruntak, hau da, ikastetxeak egin behar dituen antolamendu- eta curriculum-aldaketekin loturiko jarduerak espezifikoak: Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP), curriculuma aberastea, ohiko curriculum- eta metodologia-doikuntzak.

[6] Bestalde, oharretan esaten denez, baldintza batzuk izan behar dituzte hezkuntza-sistematik kanpoko balorazioak onartzeko. Baldintza hauek dira, txostenaren amaieran diagnostiko bat egotea, ikasteko zailtasun espezifikoena eta/edo adimen-gaitasun handiei loturikoa; diagnostikoaren txostena ez da egon behar soilik behaketa-tresnetan edo *screening*ean oinarrituta; gainera, erabili izan diren proben karatulak gehitu behar dira.

Puntu honekin bukatzeko, familiak garrantzitsuak dira [3, 7]. Eskola inklusiboa garatzeko esparru planean, hobetzeko eremuetako bat eskola-komunitatearen partaidetzaren eremua da eta bereziki garrantzitsuak dira familiak. Hauxe esaten da, hobetzeari buruz. Hitzez hitz, 14. orrian esaten denez [7]: 'Eskola-komunitatearen partaidetza haztea, bereziki familiaena, eta koordinazioa eta lankidetzak hobetzea, hala ikastetxean bertan (ikasleak, irakasleak eta familiak) nola prestakuntzako eta berrikuntzan laguntzeko zerbitzuekiko (Berritzeguneak) eta esku hartze sozial eta komunitarioko beste eragile batzuekiko'. Ahaleginak egin dira

eta egiten ari dira Eusko Jaurlaritzatik, proposamen inklusiboez familiak informatzeko. Adibideetako batzuk dira dokumentu hauek [8,9].

Gogoan izan behar da baita, familiak lehenengoak izan daitezkeela euren seme-alaben alerta-zeinuak ikusten edo identifikaziorako pistak ematen. Egia da baita, batzuetan ez direla konturatzen seme-alabek izan ditzaketen zailtasunez, baina horigatik garrantzitsua da ikusten laguntzea, ahalduntzea. Gainera, lagundu nahi dutenak asko dira, baina egia da baita agian ez dakitela nola lagundu edo nondik hasi. Azkenik, familien eskura dagoen informazioa hizkera errazean egotea eta/edo infografiak erabiltzea garrantzitsua izan daiteke, askotariko familiak daudelako (ez soilik informazio espezializatua irakurri dezaketenak).


Jarraian ebaluazio psikopedagogikoan lagungarri izan daitekeen informazioa ipiniko da, tipologiaka antolatuta eta baliabide gutxi batzuk soilik aurkeztuko dira, sintesi txiki bat eskaini nahi delako.

4.2. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak

"Hezkuntza Premia Bereziak" (HPB) terminoa 1978. urtean finkatu zen, "Warnock Txostena" izenez ezagutzen dena argitaratu zenean. Argitalpen honen izenburua "Hezkuntza Premia Bereziak" zen, Oxfordeko St. Huch College-ko Mary Warnock ikertzaileak zuzendurikoa. [3] Txostenean esaten denez, haur batek ikasteko zailtasuna du, bere adineko umeez baino esanguratsuki zailtasun handiagoa badu. Txosten horretan jaso ziren hezkuntza bereziari buruzko kontzeptzio orokorra eta baita kalitatezko hezkuntza-modalitateak hobetzeko premiazko urratsak. Espainian, "Warnock Txostena"ren ekarpenak Hezkuntzan bildu izan dira lege desberdinetan zehar [3].

Eusko Jaurlaritzaren arabera, hezkuntza-beharrizan bereziak dira, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahaste larrietatik eratorritakoak. Hauek aipatzen dira: adimen-, entzumen- edo ikusmen-degaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak, desgaitasun anitzak, gortasun-itsutasuna, jokabide-arazo larriak [4] (10 orrian). Berrigasteizek bere webgunean [10] eskuragarri jartzen du legedia, kasu honetan *hlbp Aniztasuna* atalean. Euskadin, Espainian legeak finkatu duena jarraitzen da desgaitasun mota eta mailak modu orokorrean ezartzeko (bisoreko 4. orrian). Degaitasunaren balorazioa Foru Aldundiek kudeatzen dute baina eskaera, eskatzailea erroldatuta dagoen udalerriko oinarritzko gizarte-zerbitzuan egiten da. Bizkaiko Foru Aldiaren orri honetan ikusi daiteke prozesua [12] (<https://direktorioa.net/index.php?active=3&avanzada=1>). Ezinbestekoa da Hezkuntza sailaren argitalpena erabiltzea (ikus 4. taula)

4.taula Proposamen inklusiboak argitalpena

HEZKUNTZA SAILAREN ARGITALPENA [8]	ESTEKA: https://labur.eus/6hRvf ZEIN ORRITAN ZER
<p>Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP)</p> 	
Adimen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala	37. orrian ezaugarriak
Entzumen-ikusmen desgaitasuna	21.orrian ezaugarriak daude
Desgaitasun fisikoak edo mugitzeko desgaitasunak	31. orrian ezaugarriak daude
Espektrorik gabeko autistaren nahasmenduak	73. orrian ezaugarriak daude
Desgaitasun anitzak	Ez dira aurkitu
Jokabide-arazo larriak, portaera arazoak	57. orrian ezaugarriak daude

Hona hemen Orientasarek duen informazioa, tipologiaren arabera (ikus 5. taula)
[13]

5.taula. Orientasarek eskaintzen duen informazioa tipologiaren arabera

ORIENTASAREREN BALIABIDEAK	ESTEKAK
Adimen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala	https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak/ezgaitasunintelektuala
Entzumen-ikusmen desgaitasuna	https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak/ikaskale-gorak
Desgaitasun fisikoak	Ez dira aurkitu
Espektrorik gabeko autistaren nahasmenduak	https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak/tea-autismoa
Desgaitasun anitzak	Ez dira aurkitu
Jokabide-arazo larriak, portaera arazoak	https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak/portaera

Cedec gida (Centro Nacional de Desarrollo Curricular). [14] Gogoan izan Cedec erakunde bat dela, Ministerio de Educación y Formación Profesional-en menpe dagoena (Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y Formación del Profesorado (INTEF) eta Extremadurako Juntaren Consejería de Educación y Empleoaren bidez). *Software* librearen bidez garatzen ditu hezkuntza materialak. Diagnostikari dagokionez, hainbat desgaitasuni buruzko informazioa eskaintzen du, nola identifikatu eta esku hartzeko baliabideak eskaintzen ditu, oso modu errazean (ikus 6. taula).

6.taula. 'Necesidades educativas especiales' onlineko baliabidean dauden behar bereziak

BALIABIDEAK	ESTEKAK
CEDECen onlineko baliabidea [14] 	Esteka: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/index.html
Adimen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala	Arina: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/discapacidad_ligera/index.html Ertaina, larria eta sakona: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/discapacidad_mediaseveraprofunda/index.html
Entzumen-ikusmenezko desgaitasuna	Entzumenezko ezgaitasuna: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/discapacidad_auditiva/index.html Ikusmenezko ezgaitasuna: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/discapacidad_visual/index.html
Desgaitasun fisikoak	Espina bifidoa: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/espina_bifida/index.html Garun paralisia: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/paraliscerebral/index.html Giharretako distrofia progresiboa: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/distrofiamuscular/index.html
Espekto autistaren nahasmenduak	Tea Autismoa: http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/teautismo/index.html Tea Asperger sindromea: https://labur.eus/SOnxd

6. taularen jarraipena	
BALIABIDEAK	ESTEKAK
Desgaitasun anitzak	Ez da aurkitu
Jokabide-arazo larriak, portaera arazoak	http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/nee/trastornograveconducta/index.html

4.3. Gaitasun intelektual handia duten ikasleak

Euskadiko 2019-2022 planean, adimen gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko planean, 34. orrian esaten denez [16] kolektibo heterogeneoa osatzen badute ere, gaitasun handiak dituzten pertsonak badituzte ezaugarri komun batzuk ere. Ildo horretan, berriki egindako ikerketa batzuek agerian utzi dute aparteko adimen-trebetasunak eta goi-mailako memoria-funtzioak dituztela. Halaber, erraztasun eta bizkortasun handiagoa agertzen dute informazio berria eskuratzeko garaian, baita konplexuagoa bada ere. Gainera, sakontasun-maila handiagoarekin ikasten dute, eta errepikapen-maila txikiagoa behar dute. [17] Dokumentuan esaten denez, adimen-gaitasun handiko ikasleak hautemateko eta identifikatzeko protokoloa zabaltzeko eta garatzeko jarraibideak argitaratuko dira 2021-2022 ikasturtean zehar. Ikasturte honetan baita abian jarriko da hasierako fase pilotua zenbait ikastetxetan.



Jarraian, daude ebaluazio psikopedagogikoan garrantzizkoak izan daitezkeen zenbait argitalpen, ezaugarriak ondo ezagutzen lagundu dezaketenak. Ikus 7. taulan Hezkuntza sailaren baliabideak [8, 18, 19, 20, 21] eta 8. taulan CEDECek eskaintzen duen onlineko argitalpena [22]. NHBBZ/CREENAK [23] eskaintzen duen ebaluazio psikopedagogikoari dagokionez, informazio aberatsa dago.

7.taula. Hezkuntza sailaren argitalpenak

ARGITALPENA	ESTEKAK ETA ORRIETAN ZER DAGOEN
 <p>[8]</p>	<p>80. orrian gaitasun handien ezaugarriak daude https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e.pdf</p>
 <p>[18]</p>	<p>6. kapituluan, nola antzeman, adierazleak https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf</p>
 <p>[19]</p>	<p>31. orrian kontutuan hartu beharrekoak eta 3. kapituluan kontzeptualizazioa ageri da https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/41_plandep_xileg/eu_def/Adimen-gaitasuna%20handia%202019-2022%20plana.pdf</p>
 <p>[20]</p>	<p>8.orrian ezaugarriak daude https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/100_inclusiva/1002014001e_Pub_EJ_curriculum_aberastea_e.pdf</p>
 <p>[21]</p>	<p>Arreta Goiztiarreko galdetegiak, adierazleak (31. orrian) daude https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/100018-2_Pub_EJ_Haurren_Garapenaren_Jarraipenerako_Protokoloa_Protocolo_de_Seguimiento_del_Desarrollo_Infanti_fase2.pdf</p>

Hurrengo taulan dago CEDECen argitalpena [22] identifikaziorako eta baita NHBBZ/CREENAK [23] ebaluazio psikopedagogikorako eskaintzen duen informazio baliotsua (ikus 8. taula).

8.taula. CEDEC eta NHBBZ/CREENAREN baliabideak

BALIABIDEAK	ESTEKAK
 <p>[22]</p>	<p>http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/altascapacidadesintelectuales/index.html</p>
 <p>[23]</p>	<p>https://creena.educacion.navarra.es/web/protocolos/altas-capacidades/</p>

4.4. Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak

[24] Ikasle etorri berrie dagokionez, eurekin hasierako ebaluazioa egitea garrantzitsua da. Kontuan hartzen dira eskolako dinamikara moldatzea errazten dituzten laneko ohiturak eta trebezia akademikoak. Hiru eremu dira ebaluatu beharrekoak:

1. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna: ulermen maila entzuten eta irakurtzen denarena eta adierazpen-maila, ahoz eta idatziz.
2. Matematikarako gaitasuna. Zenbaki-serieak, oinarriko eragiketa aritmetikoak, problema errazen ebazpena, geometria, neurriak, taula eta grafikoaren interpretazioa e.a. aztertzea.
3. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena: ibilbide akademikoan garrantzitsuak diren behar emozionalak aztertzea eta baita identitatearen eraikitzea e.a. arakatzea.

Dokumentu horretan, behaketarako balorazio-tresna (8. orrian) eta probak hainbat hizkuntzatan ageri dira. 13. orritik aurrera katalanez, gaztelaniaz eta frantsesez erabiltzen diren probak ageri dira. Dokumentuan bertan aipatzen denez, CASNAV Frantziako Hezkuntza Ikuskaritzaren sareak, hainbat hizkuntzatan jarri ditu hasierako ebaluazioak egiteko probak, hala nola, idatzi denaren

ulermena 15 hizkuntzetan, matematikak 30 hizkuntzetan, hitzik gabeko probak e.a. [25]. Aipagarria da baita Ibarrolak bere blogean jartzen dituenak [26], Nafarroako Gobernuarenak, Orientación Andujar-enak eta AulaPt-koak.

[27] Harrera planean esaten denez, funtsezkoa da ikasle berriaren ikaskuntza-prozesuaren jarraipena egitea, batez ere ikastetxera eta gizarte-ingurunera egokitzeko lehen faseetan (bi ikasturte edo gehiago)' (12. orr.)

Orientasarek atal baliotsu hau du [28]

<https://sites.google.com/berritzegunenagusia.eus/ikasle-etorri-berriak-gelan/sarrera>

4.5. Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak

3. kapituluan landu da gai hau eta aipatzekoa da Ikasteko zailtasun espezifikoak (IZE) terminoa batzuetan Ikasteko berriazko zailtasun (IBZ) bezala ageri dela euskarazko zenbait dokumentuetan. [8] dokumentuan esaten denaren arabera, 'Ikasle batek "Ikasteko Berriazko Zailtasunengatik" (IBZ), Hezkuntza Laguntzarako Berriazko beharrak dituela jotzen da, mintzairaren edo hizkuntza idatziaren erabileran inplikaturako oinarriko prozesu psikologiko batean edo gehiagotan nahasmenduren bat duenean. Alterazio horiek anomalia gisa ager daitezke entzutean, hitz egitean, pentsatzean, irakurtzean, idaztean edo kalkulu aritmetikoa egitean. IBZak aldi berean ager daitezke desgaitasun intelektual, sensorial edo motorrarekin, nahasmendu emozionalarekin edo kanpoko eraginekin, hala nola arazo soziokulturalekin edo eskolatze desegokiarekin, baina ez dira baldintza edo eragin horien emaitza. Irakurketa, idazketa eta kalkulua direnez ikaskuntza guztien oinarri diren bitarteko nagusiak, haien defizitek eragin negatiboa dute eskola-errendimenduan (42. orrian). DSM-5aren arabera, ikasteko berriazko zailtasunak dira matematikarako zailtasuna, irakurtzeko zailtasuna edo idatzizko adierazpenerako zailtasuna. Zailtasun hauek ez dira adimen-desgaitasunagatik, ikusmen-arazoengatik edo entzumen-arazoengatik. Ez da ere nahasmendu mentalak edo neurologikoak, ezbehar psikosoziala, ikasketa akademiko desegokia edo hizkuntza-gaitasunik ezagatik. Argitalpen honetan informazio gehiago duzu.

Oraindik orain, erabiltzen den definizioaren arabera, ebaluazio psikopedagogikoa egiteko modu desberdinak daude. Lehenik arriskua ikusi beharko litzateke eta ondoren ebaluazio psikopedagogikoa egin. Arriskua detektatzeko onlineko baliabideak badaude, hala nola, dislexiaren arriskurako *DyTECTIVE* [29].

Jarraian dagoen taulan (ikus 9. taula) ebaluazio psikopedagogikoan garrantziskoak izan daitezkeen Eusko Jaurlaritzaren inklusibitatearen argitalpenen erabiltzen diren definizioak jarriko dira [8]. Gero, Orientasarek [30], Lasarteko Berritzeguneak [31] eta NHBBZ/CREENAK [32] proposatzen dituenak erakutsiko dira eta azkenik, idazketa zailtasunetarako, Ibarra, Atutxa eta Iruskietak proposatzen duena erakutsiko da [33]. *Teknopolis* telebistako programaren 'Letren dantza' erreportaia ere lagungarria izan daiteke dislexia eta disgrafia ulertzeko.

9.taula. Zenbait baliabide Ikasteko zailtasun espezifikoak hautemateko

BALIABIDEAK	ESTEKA
Eusko Jaurlaritzaren Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku hartzea (HLBP) [8]	https://www.euskadi.eus/contenidos/documenta/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e... 42. orrian definizioa eta diagnostikorako irizpideak ageri dira
ORIENTASAREren baliabideak	https://labur.eus/1t3nK
Lasarteko Berritzeguneak DISLEXIA ulertzeko Joana Atxaren ikastaroa darabil	https://labur.eus/u9ba5
NHBBZ/CREENA. IDAZMEN ZAILTASUSAK goiz detektatzeko protokoloa	https://labur.eus/5tSag
IBARRA, ATUTXA, IRUSKIETA, Idazteko zailtasunak detektatzeko eta esku hartzeko proposamena Lehen Hezkuntzan	<i>Ikastorratza</i> aldizkarian, https://labur.eus/1F9ll
TEKNOPOLIS 'Letren dantza' Dislexia eta disgrafia [34]	https://labur.eus/IwAw4

4.6. Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak

Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak, [8] dokumentuko 43. orrian ageri den definizioa kontuan hartuta hauxe litzateke: Hizkuntzaren nahasmendua duen pertsonak komunikazio-nahasmendua dauka, hitzezko zein hitzik gabeko hizkuntza-komunikazioa (hau da, mintzamena, idatzizko adierazpena, keinu-hizkuntza...) ikasteko eta erabiltzeko zailtasun iraunkorrak ditu.



Nahasmendu hau diagnostikatzeko *Tel-Euskadi* elkartearekin [35] harremantzea aholkatzen dut. Beste informazio batzuen artean, Espainia mailako elkarteek gidak jartzen dituzte deskargatzeko moduan. Gainera, argitaratu berri dute gida bat, 'Telmo eta lau urtaroak' [36].

4.7. Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak

AUNH edo Arretaren Urritasunagatiko Nahasmendua Hiperaktibitatea dutenengan zein ez dutenengan nahasmendu neurobiologiko kronikoa da. Jarduera akademikoaren eta eguneroko jardueren aurrean borondatezko arreta mantentzeko zailtasuna du ezaugarri eta inpulsoen kontrolik ezari lotuta dago' (52. orr). [8]

Jarraian daude ebaluazio psikopedagogikoan garrantziskoak izan daitezkeen zenbait argitalpen, ezaugarriak ondo ezagutzen lagundu dezaketenak. Ikus 10. taulan Hezkuntza sailaren baliabidea [8], CEDEC-en baliabidea [37], *Federación de ayuda de asociaciones de ayuda al déficit de atención e hiperactividad* (Feaadah) [38], NHBBZ/CREENAK [39] eskaintzen duen ebaluazio psikopedagogikoaren orientabideak eta Kanariar uharteetako argitalpena [40].

10.taula. Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua identifikatzeko zenbait baliabide

ARGITAL-PENAK	ESTEKAK
 <p>[8]</p>	<p>52. orrian ezaugarriak daude https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusiboa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e.pdf</p>
 <p>[37]</p>	<p>http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/dificultades/tdah/index.html</p>
<p>FEAADAH federazioa [38]</p>	<p>http://www.feaadah.org/es/sobre-el-tdah/diagnostico.htm</p> <p>Komunitate desberdinetan dauden arautegiak eta protokoloak ageri dira. Hemen: http://www.feaadah.org/es/sobre-el-tdah/normativas-juridicas-y-protocolos-autonomicos-tdah.htm</p>
<p>NHBBZ/ CREENA baliabideak [39]</p>	<p>https://creena.educacion.navarra.es/web/pruebas-psicopedagogicas/category/tdah/</p>
<p>Kanarietako baliabidea [40]</p>	<p>https://www.gobiernodecanarias.org/educacion/web/servicios/necesidades_apoyo_educativo/otras_neae/publicaciones/publicacion_00574/</p>

Familiatzako oso garrantzitsua dela iruditzen zait CADAH fundazioak duen liburu zuria [41]. Hiru atal nagusi daude: SUSMOA, DIAGNOSTIKOA eta TRATAMENDUA eta bertan familia dagoen fasearen arabera hartu beharreko neurriak zehazten dira. Adibidez, tratamenduaren atalean, webgunearen eskuineko aldean, eskolan eraginkorra izateko txosten kliniko baterako orientabideak jartzen ditu.

4.8. Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak

Berritzegune Nagusian ikusi daitekeen informazioaren arabera [3] 5. diapositiban, eskola ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak dituzten ikasleak hauexek dira: osasun-arazoak dituzten ikasleak, etxeko arreta behar dutenak, arreta terapeutiko-hezigarria behar dutenak eta gaixotasun minoritarioak dituztenak.

Osasun mentalari dagokionez, garrantzitsua da Hezkuntza –Osasun mentalaren elkarlanerako oinarri orokorra, Hezkuntza Sailaren eta Osasun Saila -Osakidetzaren arteko ekimena [42] Dokumentuan esaten denez, bi zerbitzuek prozesuaren fase guztietan erabiliko diren instrumentu, proba eta beste tresnak zertan diren ondo jakin behar dute. Gaineratzen denez, desberdinak dira balorazio psikopedagogikoaren helburua eta diagnosi klinikoaren prozesua. Lehen kasuan, hezkuntzako laguntza-premia espezifikoa identifikatzen dira; berriz, diagnosi klinikoaren helburua interbentzio kliniko zehaztea izaten da. Diagnostikorako irizpideak bateratzeko adostasuna bilatu behar da eta batez ere 'Osasun Mentalak Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Laguntzaren Premia Espezifikoen Kodeketaren eta CIE-10-ren konfluentzia-prozesuan ematen duen laguntza azpimarratzen da' (11 orr.). Txosten eredu desberdinak daude dokumentu honetan, 19. orritik aurrera.

[43] 'Abenduaren 20ko 226/2006 Dekretuaren bidez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da medikuaren aginduz ospitale batean dagoelako, etxean suspertzen dagoelako edo programa terapeutiko-hezigarri batean dagoelako ikastetxera joaterik ez duen ikasleari hezkuntza-laguntza ematea'. 20 orr. Gipuzkoako lurralde zentroan ageri den informazioa kontuan hartuz, prozedura bat jarraitzen da.

[44] Arreta Terapeutiko-Hezigarriari dagokionez, jarraitzen den prozedura ondokoa da: Berritzeguneko Hezkuntza Premia Bereziak aholkularia, Osakidetzako CSMko terapeuta, ikaslea eta familia ados jarri ondoren, bakoitzak bere txostena helarazten dio UTE (Unidad Terapéutica Educativa) Balorazio Batzordeari. Batzorde horrek aztertu egiten du kasua eta erabakia hartzen du.

Gainera, gaixotasun minoritarioak, askotariko elikagai-alergiak eta bestelako gaixotasunak dituzten ikasleekin jarduteko protokolo bat dago: *Eskola-ordutegian zehar eman beharreko arreta sanitario bereziari buruzko zirkularra*. [45]. Hauxe esaten du:

Haurrak arazo sanitarioen bat duela jakinda, aitak/amak/tutoreak ikastetxearen ardura duen Zuzendaritzari jakinaraziko dio, dagokion osasun-ziurtagiria aurkeztuz. Ziurtagiriak honako hauek jasoko ditu: osasun-arazoa eta eskola-orduetan eman behar zaion arreta, berenberegiz adieraziz arretaren modalitateak: jarduerak, eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak. Ikastetxeko Zuzendaritzak ikastetxe horretako langile "prestatuei" emango die arazoaren berri, eta langile horiek bere esku izango dute haurrekiko esku-hartzean laguntzea ala ez, haurrari arreta ematen dion osasun-profesionalak adierazitako jarraibideen arabera. Horretarako, haurraren aitak/amak/tutoreak idatzizko baimena emango dio bere burua laguntzeko eskaintzen duenari, eta berenberegiz jaregin edo askatuko du edozein erantzukizunetik, zeregin hori betetzeari dagokionez. Ikastetxeko Zuzendaritzak ezin badio egoerari irtenbiderik eman bere baliabideekin,

ikastetxeari dagokion Osasun Eskualdeko zuzendariarengana joko du, eta horrek erabakiko du neurri operatibo egoki/beharrezkoa, kasu horretan osasun-laguntza emate aldera. (2. orr.)

4.9. Desberdintasun sozialeko egoerak

Gizarte- eta ekonomia-maila apala duten haur eta gazteek arrisku-talde batean daude. Desabantaila handiak dituzte hezkuntza-sistemara iristeko eta gainera, desabantaila hauek handiagoak izango liriateke eskolak ezer egingo ez balu. Egoera hori guztiz bidegabea denez, eskola konponbideak aurkitzen saiatzen da [4]. Funtsezkoa da ikasle hauek dituzten beharrak antzematea (informatika baliabideen eta konexio beharrak, etxeko lanak egiteko laguntza beharrak, emozioekin loturiko beharrak, e.a.. 67. orrian begiratu informazio gehiago [8] Kontuan hartu behar dira baita gurasoen zainketarik gabe tutelatuta dauden haur eta gazteen beharrak, ikus dokumentu honetako 6. kapituluaren agertzen direnak [46].

4.10. Erreferentzia bibliografikoak

- [1] EUSKO JAURLARITZA. Irakasleen gida. Euskal hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasleentzat. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hezkuntza_ikuskaritza_dok_dbh/eu_def/adjuntos/20200602_Pub_EJ_irakasleentzako_gida_e-v2.pdf
- [2] ORIENTASARE. Ebaluazio psikopedagogikoa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/site/orientasare/ebaluazio-psikopedagogikoa>
- [3] BERRITZEGUNE NAGUSIA. Ebaluazio psikopedagogikoa eskola inklusiboan. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://drive.google.com/file/d/0B0V0JB8KUSCqS1Z1eGVwUVBPMWduWEVhRmxDYTRFakZLTxVF/view?resourcekey=0-UpF29XO_fguZ9mfntzwdtw
- [4] BERRITZEGUNEA GO6 LASARTE. Balorazio psikopedagogikoa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/berrilasarte.eus/hezkuntzapremiaberziak/gaiak/balorazio-psikopedagogikoa>
- [5] BERRIGASTEIZ.COM. PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA BERRIZTATZEA ARABAN. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.berrigasteiz.com/myftp/00_mapa_diversidad_e.pdf
- [6] EUSKO JAURLARITZA. Ikastetxeko zerrendan erabilitako kodeen erabilerari buruzko irakasle aholkulariek/orientatzaileek soilik erabiltzeko eskuliburua (W67 aplikazioa)
- [7] EUSKO JAURLARITZA. Eskola inklusiboa garatzeko esparru plana: 2019-2022. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/210973>
- [8] EUSKO JAURLARITZA. Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP). [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusiBoa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e.pdf
- [9] EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen familientzako orientabideak. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Orientaciones_para_familias_alumnado_necesidad_especifica_e.pdf

[10] BERRIGASTEIZ.COM. PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA BERRIZTATZEA ARABAN. Legeria. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.berrigasteiz.com/site_legeria/aplikazioa/index.php?ambitos_select=4.

[11] REAL DECRETO 1971/1999, de 23 de diciembre (eguneratu izan dena 2000ko urtarrilaren 26an). [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/boe/dias/2000/01/26/pdfs/A03317-03410.pdf>

[12] BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Desgaitasuna ebaluatzeko eskabidea. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?bnetmobile=0&dpto_biz=3&idioma=EU&Tem_Codigo=6707

[13], ORIENTASARE. Desgaitasun intelektuala. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak/ezgaitasunintelektuala>

[14] CEDEC. Guía de atención a la diversidad. Necesidades educativas especiales. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://www.educarex.es/atencion-diversidad/guias-atencion-alumnado.html>

[15] CREENA. Evaluación psicopedagógica. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://creena.educacion.navarra.es/web/protocolos/>

[16] EUSKO JAURLARITZA. Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana 2019-2022. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/41_plandep_xileg/eu_def/Adimen-gaitasuna%20handia%202019-2022%20plana.pdf

[17] BERRIGASTEIZ.COM. PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA BERRIZTATZEA ARABAN. Berritzegunetako orientabideak 2021-2022. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.berrigasteiz.com/site_kalitatea/PR12_Planifikazioa/6-Dokumentazioa/DCE1202e_bg_orientabideak_e.pdf

[18] EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf

[19] EUSKO JAURLARITZA. Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana 2019-2022. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/41_plandep_xileg/eu_def/Adimen-gaitasuna%20handia%202019-2022%20plana.pdf

- [20] EUSKO JAURLARITZA. Currículuma aberastea. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/100_inclusiva/1002014001e_Pub_EJ_curriculuma_aberastea_e.pdf
- [21] EUSKO JAURLARITZA. Haurren garapeneren jarraipenerako protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren baitan. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/100018-2_Pub_EJ_Haurren_Garapeneren_Jarraipenerako_Protokoloa_Protocolo_de_Seguimiento_del_Desarrollo_Infanti_fase2.pdf
- [22] CEDEC. Altas capacidades intelectuales. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/altascapacidadesintelectuales/index.html
- [23] NHBBZ/CREENA. Evaluación psicopedagógica. Altas capacidades intelectuales. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://creena.educacion.navarra.es/web/protocolos/altas-capacidades/>
- [24] EUSKO JAURLARITZA. Ikasle etorri berriaren hasierako ebaluazioa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Evaluacion_Inicial_Alumnado_Recien_llegado_e.pdf
- [25] CASNAV. Outils de positionnement2. Tests de compréhension écrite. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://www.ac-strasbourg.fr/pedagogie/casnav/enfants-allophones-nouvellement-arives/ressources-premier-degre/outils-de-positionnement2>
- [26] IBARROLA, I. Blog de orientación educativa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://multiblog.educacion.navarra.es/iibarrog/2013/09/08/pruebas-de-evaluacion-inicial-primaria/>
- [27] EUSKO JAURLARITZA. Harrera-plana. Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/plan_acogida_e.pdf
- [28] BERRITZEGUNE NAGUSIA. Ikasle etorri berriak gure geletan. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://sites.google.com/berritzegunenagusia.eus/ikasle-etorri-berriak-gelan/sarrera>
- [29] CHANGE DYSLEXIA. Dytective. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://www.changedyslexia.org/register>

- [30] ORIENTASARE. Dislexia/diskalkulia. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/view/orientasare/hezkuntza-premiabereziak/iaksteko-zailtasunak>
- [31] BERRITZEGUNEA GO6 LASARTE. Dislexiaren psikologia eta hezkuntza. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/berrilasarte.eus/hezkuntzapremiabereziak/gaiak/ikastarok/dislexiaren-psikologia-eta-hezkuntza>
- [32] NHBBZ/CREENA. Idazmen zailtasunak goiz detektatzeko protokoloa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://creena.educacion.navarra.es/web/eu/atentzio-zuzeneko-arloa/ikaskuntza-eta-aho-hizkuntza-zailtasuna/ebaluazioa-tc/idazmen-zailtasunak-goiz-detektatzeko-protokoloa/>
- [33] IBARRA, I., ATUTXA, U. ETA IRUSKIETA, M. Idazteko zailtasunak detektatzeko eta esku hartzeko proposamena Lehen Hezkuntzan. *Ikastorratza. e-Revista de Didáctica*, 2021, 27 zkia., 1-29. DOI: 10.37261/27_alea/1
- [34] TEKNOPOLIS. Letren dantza. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://teknopolis.elhuyar.eus/erreportaiak/dilexia-letren-dantza/?lang=eu>
- [35] TEL-EUSKADI. BLOGA. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <http://tel-euskadi.blogspot.com/p/material.html>
- [36] ONDA CERO. Telmo eta lau urtaroak. Telmo y las cuatro estaciones. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.ondacero.es/emisoras/paisvasco/vitoria/alicia-solavera-estamos-muy-felices-premio-que-mucha-proyeccion-nuestro-trabajo_20211124619e30f6d432b1000172efd3.html
- [37] CEDEC. TDAH. Déficit de atención por hiperactividad. http://descargas.pntic.mec.es/cedec/atencion_diver/contenidos/dificultades/tdah/index.html
- [38] FEDERACIÓN DE AYUDA DE ASOCIACIONES DE AYUDA AL DÉFICIT DE ATENCIÓN E HIPERACTIVIDAD (FEAADAH). Diagnóstico. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <http://www.feaadah.org/es/sobre-el-tdah/diagnostico.htm>
- [39] NHBBZ/CREENA. Froga psikopedagogikoak. NHBBZko liburutegia. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: <https://creena.educacion.navarra.es/web/pruebas-psicopedagogicas/category/tdah/>
- [40] KANARIETAKO GOBERNUA. ARTILES, C. eta JIMÉNEZ, J.E. (koord.) Normativización de instrumentos para la detección e identificación de las necesidades educativas del alumnado con Trastornos por Déficit de Atención con o sin Hiperactividad (TDAH) o alumnado con Dificultades Específicas de Aprendizaje (DEA). [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri: https://www.gobiernodecanarias.org/educacion/web/servicios/necesidades_apoyo_educativo/otras_neae/publicaciones/publicacion_00574/

[41] CADAH FUNDAZIOA. Libro blanco del TDAH. Qué hacer. De la sospecha al tratamiento [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://libroblancotdah.fundacioncadah.org/tratamiento/>

[42] EUSKO JAURLARITZA eta OSAKIDETZA. Hezkuntza –Osasun mentalaren elkarlanerako oinarri orokorra. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
<https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/211403>

[43] EUSKO JAURLARITZA. 2019-2020 Ikasturtearen antolaketa. Ospitaleko edo etxeke arreta edo arreta terapeutiko-hezigarria behar duten ikasleak. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ctros_ee_organizacion_curso_pb/eu_def/adjuntos/Ebazepena_Haur_eta_Lehen_Hezkuntza_2019_2020.pdf

[44] OSPITALE ETXEZ ETXE TERAPEUTIKO HEZIGARRIA (OETH). GIPUZKOKO LURRALDE ZENTROA. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30].
Eskuragarri:<https://oethgipuzkoa.hezkuntza.net/eu/revista>

[45] EUSKO JAURLARITZA. Eskola-ordutegian zehar eman beharreko arreta sanitario bereziari buruzko zirkularra, 2006koa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30].
Eskuragarri:https://www.berrigasteiz.com/site_orientabideak/20060830_atencion_sanitaria_e.pdf

[46] AGENCIA DE LOS DERECHOS FUNDAMENTALES DE LA UNIÓN EUROPEA. La tutela de menores privados de derechos parentales. [online]. [Kontsulta: 2022-03-30]. Eskuragarri:https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2014-guardianship_es.pdf